Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko ekainaren 2a, osteguna — 104 — Jueves, a 2 de junio de 2016



## OÑATIKO UDALA

*«Oñatiko Kiroldegiko eta Kalegoieneko udal aparkalekuak arautzeko ordenantza» behin betiko izaeraz onartzea.*

2016ko apirilaren 7an Osoko Bilkurak ahobatez onartu zuen «Oñatiko Kiroldegiko eta Kalegoieneko udal aparkalekuak arautzeko ordenantza» hasiera bateko izaeraz onartzea.

Kontuan izanik, Ordenantza hori jendaurrean jarri den epean(2016-4-14ko dataz argitara eman zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 69 zkia) ez dela ez alegazio ez iradokizunik aurkeztu, Toki Araubidearen Oinarri-Arauak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluko azkeneko paragrafoak ezarritakoaren arabera, Ordenantza behin-betikoz onartutzat jotzea erabaki du Udal Plenoak 2016ko maiatzaren 26ko bileran.

Adierazten da, Ordenantza honen aurka, Administrazio Auzigaietako Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzigaietako Aretoan, bi hileko epean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Toki Araubidearen Oinarri-Arauak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetara, aipatu Ordenantzaren testu osoa ematen da argitara.

Oñati, 2016ko maiatzaren 30a.—Alkatea. (3903)

*San Juan kaleko (Kiroldegiko) eta Kalegoieneko lurpeko udal-aparkalekuetan ibilgailuen aparkaldia mugatu eta antolatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza.*

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Eskumena.*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, 25.2.g artikuluan (abenduaren 27ko 27/2013 Legearen 1.8 artikuluak sartutako aldaketa), eta Trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide-segurtasuna arautzen dituen Legearen testu bategina onartu duen 2015eko urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako errege-dekretuaren 39.4 artikuluak Udalari trafikoaren eta zirkulazioaren arloetan emandako eskumenaren arabera xedatu da ordenantza hau.

*2. artikulua. Xedea.*

Kiroldegiko eta Kalegoieneko lurpeko estalitako aparkalekuetan 3.500 kg edo gutxiagoko ibilgailuen aparkaldi arautu eta mugatuaren udal-zerbitzu publikoa arautzea da ordenantza honen xedea.

*3. artikulua. Aplikazio-eremua.*

Ordenantza honen aginduak aplikagarriak dira Oñatiko Udalaren jabetzakoak diren Kalegoieneko eta San Juan kaleko (Kiroldegiko) lurpeko estalitako aparkaleku publikoetan, eta horien erabiltzaile guztiek bete beharrekoak dira.

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Aprobación definitiva de la «Ordenanza reguladora de los aparcamientos del polideportivo y de Kalegoiena de Oñati».*

El Pleno Municipal por unanimidad en sesión celebrada el día 7 de abril de 2016 acordó aprobar con carácter inicial la «Ordenanza reguladora de los aparcamientos del polideportivo y de Kalegoiena de Oñati».

Habida cuenta de que durante el período de exposición pública (fue publicada en Boletin Oficial de Gipuzkoa de fecha 14-4-2016 - n.º 69) de la citada Ordenanza no ha sido presentada ninguna reclamación ni sugerencia, en virtud de lo establecido en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 26 de mayo de 2016ko acordó aprobar con carácter definitivo la Ordenanza.

Contra la presente Ordenanza, se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

En virtud y a los efectos de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la citada Ordenanza.

Oñati, a 30 de mayo de 2016.—El alcalde. (3903)

*Ordenanza reguladora del servicio público de control de limitación y ordenación del estacionamiento de vehículos en los aparcamientos subterráneos municipales de San Juan Kale (Kiroldegia) y Kalegoiena.*

TÍTULO PRELIMINAR

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Competencia.*

La presente Ordenanza se dicta en virtud de la competencia atribuida al Municipio en materia de tráfico y circulación por la Ley 7/85 de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local, en su art. 25.2.g) (modificación introducida por la Ley 27/2013 de 27 de diciembre art. 1.8), así como por el artículo 39.4 del Real decreto legislativo 6/2015 de 30 de octubre de 2015 por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial.

*Artículo 2. Objeto.*

El objeto de esta ordenanza establecer las normas que han de regular el Servicio Público municipal de estacionamiento regulado y limitado de vehículos de hasta 3.500kg en los aparcamientos subterráneos cubiertos Kiroldegia y Kalegoiena.

*Artículo 3. Ámbito de aplicación.*

Los preceptos de esta ordenanza son aplicables en los aparcamientos públicos subterráneos-cubiertos propiedad del Ayuntamiento de Oñati, sitos en Kalegoiena y San Juan kalea (Kiroldegia) y obligan a cualquier usuario de los mismos.

EK\CV GAO-I-2016-03903

Oñatiko Udalak ez du bere gain hartuko ordenantzaren xede diren aparkalekuetan gerta litezkeen lapurreten edo kalte zuzen edo zeharkakoen gaineko erantzukizunik.

I. TITULUA

KIROLDEGIKO ETA KALEGOIENEKO LURPEKO APARKALEKUEN GAINEKO ARAUDIA

*4. artikulua. Hileko abonamenduak.*

Udalak hileko hainbat abonamendu mota jarri ditu erabiltzaileen eskura: egunekoa, gauekoa, osoa eta berezia. Erabiltzaileek mota bakoitzari dagokion ordutegian aparka dezakete ibilgailua.

*5. artikulua. Ordutegia eta erabilera.*

Aparkaldi mugaturako honako ordutegi hau finkatu da:

— Kalegoieneko aparkalekua, 06:00etatik 24:00etara. Ordutegi horren barruan erabiltzaileak aparkalekura sartu ahal izango dira ibilgailua aparkatzeko edo ateratzeko. Ordutegi horretatik kanpo, erabiltzaileek lehendik aparkatuta zuten ibilgailua ateratzeko aukera izango dute bakarrik.

— Kiroldegiko aparkalekua, 24 orduz erabilgarri.

Aparkatzeko eguneko abonamendua duten erabiltzaileek egun bereko 9:00etatik 21:00etara erabili ahal izango dute aparkalekua. Ordutegi horretatik kanpo, tiketa atera beharko dute parkimetroan, gainerako erabiltzaileek bezala. Udalak, eguneko erabilera baimentzen duen identifikazio-txartela emango die abonatuei.

Aparkatzeko gaueko abonamendua duten erabiltzaileek 21:00etatik biharamuneko 09:00etara erabili ahal izango dute aparkalekua. Ordutegi horretatik kanpo, tiketa atera beharko dute parkimetroan, gainerako erabiltzaileek bezala. Udalak, gaueko erabilera baimentzen duen identifikazio-txartela emango die abonatuei.

Aparkatzeko abonamendu osoa duten erabiltzaileek eguneko 24 orduetan erabili ahal izango dute aparkalekua. Udalak aparkalekua egun osoz erabiltzea baimentzen duen identifikazio-txartela emango die abonatuei.

Aparkatzeko abonamendu berezia duten erabiltzaileek kasu bakoitzari dagozkion baldintzen arabera erabili ahal izango dute aparkalekua.

Ordutegiak Alkatetza-Udalburutzaren Dekretuz alda litezke.

*6. artikulua. Aparkatzeko baldintzak.*

Ordenantza honen araupean den zonaldean aparkatzeko, erabiltzaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Tiketa ibilgailuaren haizetakoaren barrualdean jarri beharko du, kanpotik osorik ikusten dela, betiere ordutegia indarrean eta ibilgailuaren matrikula zuzen jarrita dituela; horretarako jarrita dagoen parkimetroan eskuratu beharko du.

b) Hilabeteko abonamenduren bat duen erabiltzaileak, berriz, Udalak emandako baimenaren identifikazio-txartela ibilgailuaren haizetakoaren barrualdean jarri behar du, kanpotik osorik ikusten dela.

*7. artikulua.*

Alkatetza-Udalburutzak, Zerbitzuetako sailak arrazoiz proposatuta, aldi baterako bertan behera utzi ahal izango du ordenantza hau aplikatzea, trafikoan eta aparkalekuetan eragina izango duten kausa arrazoituek iraungo duten aldietan edo egunetan.

El Ayuntamiento de Oñati no se hace responsable de los posibles daños, sustracciones ni perjuicios directos o indirectos que puedan suceder en el interior de los aparcamientos objeto de esta ordenanza.

TÍTULO I

REGULACIÓN DE LOS APARCAMIENTOS SUBTERRÁNEOS DE KIROLDEGIA Y KALEGOIENA

*Artículo 4. Abonos mensuales.*

El Ayuntamiento tiene a disposición de los usuarios diferentes abonos mensuales: diurno, nocturno, completo y especial, que dan derecho a estacionar en el horario para cada uno de ellos establecido.

*Artículo 5. Horario de apertura y uso.*

El horario que se establece para el funcionamiento del estacionamiento limitado es el siguiente:

— Aparcamiento Kalegoiena desde las 06:00horas hasta las 24:00horas. Dentro de este horario los usuarios podrán acceder al aparcamiento para estacionar o sacar el vehículo. Fuera de este horario los usuarios únicamente podrán sacar el vehículo previamente estacionado.

— Aparcamiento Kiroldegia 24 horas.

Los usuarios que dispongan de Abono diurno de aparcamiento, podrán hacer uso del mismo desde las 09:00horas hasta las 21:00horas del mismo día. Fuera de este horario deberán seguir el mismo sistema que el resto de usuarios y sacar ticket en el parquímetro instalado al efecto. El Ayuntamiento facilitará al abonado tarjeta identificativa de autorización de uso diurno.

Los usuarios que dispongan de Abono nocturno de aparcamiento podrán hacer uso del mismo desde las 21:00horas hasta las 09:00horas del día siguiente. Fuera de este horario deberán seguir el mismo sistema que el resto de usuarios y sacar ticket en el parquímetro instalado al efecto. El Ayuntamiento facilitará al abonado tarjeta identificativa de autorización de uso nocturno.

Los usuarios que dispongan de Abono completo de aparcamiento podrán hacer uso del mismo durante las 24 horas. El Ayuntamiento facilitará al abonado tarjeta identificativa de autorización de uso completo.

Los usuarios que dispongan de Abono especial de aparcamiento podrán hacer uso del mismo en las condiciones que en cada caso se establezcan.

Los horarios podrán ser modificados mediante Decreto de Alcaldía-Presidencia.

*Artículo 6. Requisitos de estacionamiento.*

Para estacionar dentro de la zona regulada por la presente ordenanza, deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) Exhibir en la parte interior del parabrisas del vehículo, de forma totalmente visible desde el exterior, ticket con la vigencia temporal correspondiente, con la matrícula del vehículo correctamente anotada, y expedido por el parquímetro instalado al efecto.

b) En caso de poseer cualquier tipo de Abono mensual, la tarjeta identificativa de autorización emitida por el Ayuntamiento, deberá exhibirse en la parte interior del parabrisas del vehículo, de forma totalmente visible desde el exterior.

*Artículo 7.*

La Alcaldía-Presidencia, a propuesta motivada del Área de Servicios, podrá dejar en suspenso la aplicación de la presente ordenanza durante los períodos o días, que por causas debidamente motivadas incidan de cualquier forma, en el tráfico y estacionamientos.

EK\CV GAO-I-2016-03903

*8. artikulua.*

Ordenantza hau beteko dela bermatze aldera, beharrezkoak diren bitarteko materialak eta langileak dituen kontrol-sistema ezarri da.

II. TITULUA

APARKATZEAGATIKO KOBRANTZAREN ARAUAK

*9. artikulua.*

Honako tasa hauek dagozkio ordenantzak arautzen dituen aparkalekuetan ordubetez aparkatzeari:

1. Kalegoieneko aparkalekua:

a) Lehen bi orduak doan.

b) Lehen bi orduak igaro ondoren: minutuka kobratuko da, ordenantza fiskalean urtero jasoko den tasaren arabera.

2. Kiroldegiko aparkalekua:

a) Lehen bi orduak doan.

b) Lehen bi orduak igaro ondoren: minutuka kobratuko da, ordenantza fiskalean urtero jasoko den tasaren arabera.

c) Astelehenetik ostiralera, lanegunetan, 08:00etatik 09:15era, gehienez 15 minutuz aparkatu ahal izango da tiketik jarri gabe.

3. Hilabeteko abonamenduei dagozkien tasen zenbatekoa ordenantza fiskalaren bidez arautuko da.

Tasa guztiak urtero eguneratuko dira eta, ondoren, dagokien udal-ordenantza fiskalean jasota geldituko dira.

*10. artikulua. Aparkaldia.*

1. Gehienez, 24 orduz jarraian eduki ahal izango da ibilgailua aparkatuta.

2. 24 ordutik gorako aparkaldietarako, erabiltzaileak baimena eskatu beharko du Oñatiko Udalean. Udalak eskaera onartuz gero, baimen berezia adierazten duen txartela emango dio, baimendutako denbora idatzita izango duena. Txartel hori ibilgailuaren haizetakoaren barrualdean jarri behar du erabiltzaileak, kanpotik osorik ikusten dela.

3. 24 ordutik gorako aparkaldiari dagokion tasaren zenbatekoa ordenantza fiskal bidez arautuko da.

III. TITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

*11. artikulua. Arau-hausteak.*

1. Ordenantza honetako edozein artikuluren arauak hautsiz gero, eta Alkatetza-Udalburutzak ordenantzaren garapenean xedatutakoa betetzen ez bada, trafiko- eta zirkulazio-antolamenduko arauak hautsi direla hartuko da kontuan eta, ondorioz, isunak ezarriko dira legez finkatutako zehapen-prozeduraren bidez.

2. Honako hauek arau-haustetzat hartuko dira:

a) Tiketean jartzen duen aparkaldia gainditzea.

b) Tiketik ez jartzea.

c) Baliozkoa ez den tiketa erabiltzea (tiketeko matrikula eta ibilgailuarena bat ez etortzea, beste parkimetro bateko tiketa erabiltzea, beste egun edo ordu bateko tiketa erabiltzea...).

d) Tiketa ez jartzea kanpotik ikusteko moduan.

*Artículo 8.*

Al objeto de garantizar el cumplimiento de la presente ordenanza se establece un servicio de control dotado de los medios materiales y personales necesarios.

TÍTULO II

NORMAS REGULADORAS DEL COBRO POR ESTACIONAMIENTO

*Artículo 9.*

La tasa por hora de estacionamiento en los aparcamientos objeto de esta ordenanza serán las siguientes:

1. Aparcamiento Kalegoiena:

a) Las dos primeras horas gratuitas.

b) A partir de las 2 primeras horas: se cobrará por minuto de estacionamiento la tasa que anualmente se recoja en la ordenanza fiscal.

2. Aparcamiento Kiroldegia:

a) Las dos primeras horas gratuitas.

b) A partir de las 2 primeras horas se cobrará por minuto de estacionamiento la tasa que anualmente se recoja en la ordenanza fiscal.

c) De lunes a viernes laborales en horario de 08:00 a 09:15horas se permite el estacionamiento por un tiempo máximo de 15 minutos sin colocar ticket.

3. El importe de las tasas por abonos mensuales se regulará mediante ordenanza fiscal.

4. Todas las tasas serán actualizadas anualmente y posteriormente recogidas en la correspondiente ordenanza fiscal del Ayuntamiento.

*Artículo 10. Tiempo de estacionamiento.*

1. El tiempo máximo de estacionamiento continuado es de 24 horas.

2. Para períodos superiores a 24 horas, el usuario deberá solicitar autorización en el Ayuntamiento de Oñati. En caso de que su solicitud sea aceptada el Ayuntamiento le expedirá una tarjeta de autorización especial donde constará el plazo de tiempo autorizado. Esta tarjeta deberá exhibirse en la parte interior del parabrisas del vehículo, de forma totalmente visible desde el exterior.

3. El importe de la tasa por estacionamiento superior a 24 horas, se regulará mediante ordenanza fiscal.

TÍTULO III

INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 11. Infracciones.*

1. La infracción a cualquiera de los artículos de la presente ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía-Presidencia, tendrán la consideración de infracciones a las normas de ordenación del tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento sancionador legalmente establecido.

2. Se consideran infracciones:

a) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket.

b) No colocar ticket.

c) Utilizar un ticket no válido (matrícula del ticket no coincide con la del vehículo, ticket emitido por otro parquímetro, ticket correspondiente a otro día u hora...).

d) No exhibir el ticket de forma visible desde el exterior.

EK\CV GAO-I-2016-03903

e) Abonatuaren identifikazio-txartela ez jartzea kanpotik ikusteko moduan.

*12. artikulua. Zehapenak.*

1. 11.2 artikuluan tipifikatutako arau-hausteak arintzat jotzen dira eta trafikoko udal-ordenantzan finkatutako isunaren zenbatekoa aplikatuko zaie.

2. Isunaren zenbatekoa %50 gutxituko da zuzenean parkimetro-makinan ordaintzen bada 24 orduko epean; edo Oñatiko Udaleko Diru-bilketako zerbitzuan ordaintzen bada, arau-hausleari jakinarazi ondorengo hogei eguneko epean. Salaketa baldintza horien arabera ordaintzen ez bada, trafikoko zehapen-prozedurari ekingo zaio.

3. 11.2 artikuluan tipifikatuta dauden eta aparkaldia gehiegikeriaz erabili izanaren ondorio diren arau-hausteen kasuan, udal-agintaritzak ibilgailua udal-biltegira eraman ahal izango du, isun ekonomikoa jartzeaz gain.

Ibilgailua erretiratzeko zerbitzuaren eta biltegian izatearen ondoriozko tasak ordenantza fiskalean finkatuko dira.

*13. artikulua.*

Ordenantza honetan aurreikusita ez dauden egoeren aurrean, Oñatiko Udaleko trafikoko udal-ordenantzan xedatutakoa eta trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide-segurtasuna arautzen dituen Legea hartuko dira kontuan, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraz gain.

*Xedapen gehigarri bakarra.*

Alkatetzak ordenantza hau egoki interpretatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak eman ahal izango ditu.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitaratu ondoren eta Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 65.2 artikuluan jasotako epea igarota sartuko da indarrean; aldatu arte edo berariaz indargabetu arte izango da indarrean, eta hori Udalbatzak erabaki beharko du.

*Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.*

Indargabetuta gelditu dira: «Oñatiko udal-aparkalekuetan aparkatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza», 2007ko urriaren 24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (208) argitaratu zena; 2009ko uztailaren 28ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (140) argitaratutako aldaketa eta 2015eko otsailaren 6ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (140) argitaratutako aldaketa.

e) No exhibir la tarjeta identificativa de abonado de forma visible desde el exterior.

*Artículo 12. Sanciones.*

1. Las infracciones tipificadas en el artículo 11.2 se consideran infracciones leves y se aplicará la cuantía de la sanción establecida en la ordenanza municipal en materia de tráfico.

2. El importe de la sanción se reducirá en un 50% si se abona directamente en la máquina-parquímetro en el plazo de 24 horas; o bien si se abona en el Servicio de Recaudación del Ayuntamiento de Oñati en el plazo de veinte días desde que el infractor es notificado. En caso de que la denuncia no se abonase en estas condiciones, se daría inicio al procedimiento sancionador de tráfico.

3. Las infracciones tipificadas en el artículo 11.2 y que supongan una extralimitación por uso abusivo del estacionamiento determinarán por sí mismas, que la autoridad municipal pueda retirar dicho vehículo al depósito municipal, con independencia de la sanción económica que se imponga.

La prestación del servicio de retirada del vehículo así como su depósito devengarán las tasas que al efecto se establezcan en la ordenanza fiscal.

*Artículo 13.*

En lo no previsto en la presente ordenanza, se estará a lo dispuesto en la ordenanza municipal reguladora de tráfico del Ayuntamiento de Oñati y en la Ley sobre Tráfico, circulación de vehículos a motor y Seguridad Vial, así como en el Reglamento General de Circulación para la aplicación y desarrollo de la misma.

*Disposición adicional única.*

La Alcaldía queda facultada para dictar cuantas órdenes e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de esta Ordenanza.

*Disposición final.*

La presente ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y una vez transcurrido el plazo previsto en el art. 65.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el pleno del Ayuntamiento.

*Disposición derogatoria única. Derogación normativa.*

Quedan derogadas la «Ordenanza Reguladora del Servicio de estacionamiento en los aparcamientos municipales de Oñati» publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa (208) el 24 de octubre de 2007; la modificación publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa (140) del 28 de julio de 2009 y la modificación publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa (140) del 06 de febrero de 2015.

EK\CV GAO-I-2016-03903